



ADMINISTRATIO ETA ZERBITZUEN
SAILBURUORDEAREN EBAZPENA.
HONEN BIDEZ, JAKINARAZTEN DA
HEZKUNTZA SAILBURUAREN 2022KO
EKAINAREN 21EKO AGINDUAREN
BABESEAN EGINDAKO 2024-2025
IKASTURTEAN ITUNDUTAKO
UNITATEEN/LANGILE OSAGARRIEN
ALDAKETAK ETA ESPEDIENTEAREN
ALEGAZIOALDIA. AIPATUTAKO
AGINDUAK DEIALDIA EGIN ZUEN
HEZKUNTZA-ITUNAK BERRITZEKO ETA
HEZKUNTZA-ITUNAREN ARAUBIDEAN
SARTZEKO, UNITATE ZEHATZAK
ZEHAZTUTA, BAI ETA LAGUNTZAKO
LANGILE OSAGARRIAK ITUNTZEKO
ERE, INDARRALDIA 2022-2023
IKASTURTETIK 2027-2028 IKASTURTERA
IZANIK.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduaren bidez, deialdia egin zen hezkuntza-itunak berritzeko eta hezkuntza-itunaren araubidean sartzeko, unitate zehatzak zehaztuta, bai eta laguntzako langile osagarriak ituntzeko ere, 2022-23 ikasturtetik 2027-2028 ikasturtera arte.

Agindu horren 17 artikulua, "Itunaren aldaketa", hau xedatzen du:

4.- Ezohiko aldaketa ofiziozkoa izango da; egiten den ikasturte berean ditu ondorioak, eta gehitzea nahiz murriztea ekar dezake, ondorengo apartatu hauetako kasuren bat egonez gero:

a) Irakaskuntzak, unitateak edo laguntzako langile osagarriak gehitzea dakarren ezohiko aldaketa honako zergati hauetakoren batengatik egin daiteke soilik:

- Ikasle berriak sartzeko ohiko onarpen-prozeduratik kanpo, baldin eta beste ikastetxe batean plaza librerik ez badago eta onarpena ohiko prozeduratik kanpoko onarpena arautzen duen araudiaren arabera egin bada.

RESOLUCIÓN DE LA VICECONSEJERA DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS, POR LA QUE SE PROCEDE A LA APERTURA DE UN PERIODO DE ALEGACIONES EN EL EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE LAS UNIDADES CONCERTADAS Y/O PERSONAL COMPLEMENTARIO DEL CURSO 2024-2025 AL AMPARO DE LA ORDEN DE 21 DE JUNIO DE 2022, DEL CONSEJERO DE EDUCACIÓN, POR LA QUE SE CONVOCA LA RENOVACIÓN DE LOS CONCIERTOS EDUCATIVOS Y EL ACCESO AL RÉGIMEN DEL CONCIERTO EDUCATIVO, CON DETERMINACIÓN DE LAS CONCRETAS UNIDADES, ASÍ COMO LA CONCERTACIÓN DEL PERSONAL COMPLEMENTARIO DE APOYO, CON VIGENCIA DESDE EL CURSO ACADÉMICO 2022-2023 HASTA EL CURSO 2027-2028.

Mediante Orden de 21 de junio de 2022, del Consejero de Educación, se convocó la renovación de los conciertos educativos y el acceso al régimen del concierto educativo, con determinación de las concretas unidades, así como la concertación del personal complementario de apoyo, con vigencia desde el curso académico 2022-23 hasta el curso 2027-2028.

En su artículo 17 "Modificación de oficio" se establece:

4.- La modificación de carácter extraordinario será de oficio y es aquella que se produce con efectos en el mismo curso escolar en que se realiza, y puede dar lugar tanto al incremento como a la disminución, siempre que concurra alguno de los supuestos contemplados en los apartados siguientes:

a) La modificación de carácter extraordinario que suponga incremento de enseñanzas, unidades o personal complementario de apoyo, únicamente cabe por alguna de las siguientes causas:

- La incorporación de nuevo alumnado fuera del procedimiento ordinario de admisión, siempre que no hubiera plaza libre en otro centro y la admisión sea conforme a la normativa que regula la admisión fuera del procedimiento ordinario.





Ikasle errepikatzaileen matrikulek ez dute inolako aldaketarik eragingo.

- Ikasleek ikastetxean jarraitzea bermatzeko eskubidea erabiltzea, urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuan adierazi bezala, ikasle-kopuruak ratioak eta gutxieneko ikasle-kopurua betetzen baditu.

- Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak edo itunpeko unitateetan eskolatutako ikasleen konpentsazioa gehitzea.

b). Irakaskuntzak, unitateak edo laguntzako langile osagarriak gutxitzea dakarren ezohiko aldaketa honako zergati hauetakoren batengatik egin daiteke soilik:

- Emakidarako kontuan izandako ikasleei buruzko datuak eta egiaz eskolatutakoak, edo horien hezkuntza-laguntzako berariazko premiak, bat ez etortzeagatik, ikasturtea hasitakoan eta ikasturtean zehar.

- Ikasleen hezkuntza-laguntzako berariazko premiak edo hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzekoak gutxitzeagatik.

Hezkuntzako sailburuaren 2024ko irailaren 12ko Aginduak ebatzen du 2024-2025 ikasturterako unitate zehatzak zehaztea eta laguntzako langile osagarriak ituntzea, eta 2024-2025 ikasturteetik 2027-2028 ikasturtera arte indarrean egongo diren hezkuntza-itunen araubidean sartzeari.

Ohiko matrikulazio-epea amaituta, eta Hezkuntza Sailean dagoen dokumentazioaren arabera, bidezkoa da 2024-2025 ikasturterako itundutako unitateak eta/edo langile osagarriak aldatzeko administrazio-prozedura hastea.

Hori guztia dela-eta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Jakinaraztea 2024-2025 ikasturterako itundutako unitateak eta/edo langile osagarriak, 2022ko ekainaren 21eko Aginduaren 17. artikuluan aurreikusitako ituntzea ofizioz aldatzearen ondoriozkoak. Horien zerrenda jaso da eranskinean.

Las matrículas de alumnado repetidor no darán lugar a modificación alguna.

- El ejercicio por el alumnado del derecho a la garantía de continuidad en el centro, contemplada en el Decreto 1/2018, de 9 de enero, siempre que, el número de alumnos y alumnas cumplan las ratios y número mínimo de alumnado.

- El incremento de las necesidades específicas de apoyo educativo o de compensación del alumnado escolarizado en las unidades concertadas.

b). La modificación de carácter extraordinario que suponga disminución de enseñanzas, unidades o personal complementario de apoyo, únicamente cabe por alguna de las siguientes causas:

- El desajuste entre los datos del alumnado tomados en cuenta para la concesión, con los datos reales del alumnado escolarizado, o sus necesidades específicas de apoyo educativo, una vez iniciado y durante el curso escolar.

- La disminución de las necesidades específicas de apoyo educativo o de compensación educativa de desigualdades, del alumnado.

La Orden de 12 de septiembre de 2024, de la Consejera de Educación, resuelve la determinación de las concretas unidades, así como la concertación del personal complementario de apoyo para el curso escolar 2024-2025; y el acceso al régimen de conciertos educativos con vigencia desde el curso académico 2024-2025 hasta el curso 2027-2028.

Finalizado el plazo de matriculación ordinaria, y de acuerdo a la documentación obrante en el Departamento de Educación, procede incoar el procedimiento administrativo de modificación de las unidades concertadas y/o personal complementario para el curso 2024-2025.

Por lo antedicho,

RESUELVO:

Primero.- Notificar las unidades concertadas y/o personal complementario para el curso 2024-2025 derivadas de la modificación de oficio de la concertación prevista en el artículo 17 de la orden de 21 de junio de 2022 que se relacionan en el anexo.



Bigarrena.- Ematea 10 egun balioduneko epea, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatu beharrekoa, interesdunak alegazioak egin ditzan eta egokitzat jotzen dituen agiriak aurkezteko.

Segundo.- Conceder un plazo de 10 días hábiles contados a partir del día siguiente a publicación de la presente Resolución para que se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna.

Blanca Guerrero Ocejo
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea
Viceconsejera de Administración y Servicios